

INGELESA IRAKAS-HIZKUNTZA DENEAN: IRAKASLEEN ESTRATEGIAK ETA IKASGELAKO PRAKTIKAK *CLIL*EN

Tesiaren egilea: Nerea Villabona Perurena

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Hezkuntza Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak

Tesi-zuzendaria: Jasone Cenoz Iragui

Tesiaren laburpena:

Tesiaren ingelesezko izenburua honako hau da: *Teaching and Learning through English: Classroom Strategies and Practices in CLIL*.

Europar zehar Content and Language Integrated Learning (CLIL) edo Edukien eta Hizkuntzen Ikaskuntza Integratua (EHII) programak ezartzen ari dira atzerriko hizkuntza-maila hobetu eta eleaniztasuna bultzatzeko helburuarekin. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hezkuntza-sistemak ere eman du pauso hori. Izan ere, EAEko hezkuntza-helburuetako bat da, euskara oinarri izanik, eleaniztasuna lortzea, eta, horregatik, atzerriko hizkuntza irakas-hizkuntza den programak ezartzen ari dira. Atzerriko hizkuntza hori, kasu gehienetan, ingelesa izaten da.

Lan honen helburua da CLIL irakasgai horien inplementazioa aztertzea EAEko bigarren hezkuntzan. Zehatzago esanda, lan honek edukiak eta hizkuntza integratzean egiten diren praktikak deskribatzen ditu, bai eta edukiak modu ulergarri batean emateko estrategiak aztertu ere. Gainera, testuinguru eleaniztun honetan, irakasle eta ikasleen errepertorio linguistikoaren erabilera aztertzen da ingelesa irakas-hizkuntza bihurtzen denean. Horretarako, lanak forma kualitatiboa hartu du; kasu-azterketa egin dugu, non lau CLIL irakasgai aztertzen diren. Datuak ikasgelako behaketen, irakasleekin izandako elkarrizketen eta klaseko dokumentuen bidez lortu dira.

Emaitzek erakusten dute, besteak beste, irakaslearen profilak eragin zuzena duela programa hauek inplementatzean. Izan ere, gure lanean ikusi denaren arabera, eduki-irakasle direnak atzerriko hizkuntza irakastearen ideiatik urruntzen dira eta edukietan zentratzen dira soilik. Bestalde, hizkuntza-irakasle direnek hizkuntza-kontzientzia handiagoa erakusten dute eta, besteak beste, estrategia gehiago erabiltzen dituzte edukiak modu ulergarrian irakasteko atzerriko hizkuntzan. Ikasgela barruko praktikak ere *translanguaging* pedagogikoaren potentziala azaleratzen dute.